



Idazki honen bidez dei egin gura deusut 2012ko urriaren 8an arratsaldeko 19:00 etan egingo dan Bilkuran parte hartu daizun, orri honetan agertzen dan GAI-ZERRENDEA aztertuko dala.

Modu berean adierazo gura deusut etorri ezin badozu, aurretiaz jakinarazo beharko dozula Alkatetza honetan.

Bertaratutakoen kopurua legezkoa ez balitz, bigarren deialdian egingo da batzarra, lehenengorako ipini dana baino 48 ordu geroago.

Igorren 2012ko urriaren 3an.

ALKATEA

GAI ZERRENDA

- 1- Aurreko akta irakurri eta ontzat emotea.
- 2- Igorreko Arau Subsidiarioen hamabosgarren aldaketa behin-behineko onarpena emotea Aparion hondakinen transferentzia-gune bat egiteko foru-bideak egokitzeko.
- 3- Ordainsariak baja kasuetan, aldi baterako ezintasunagatik (kontingentzia arruntak) ,(aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko, uztailearen 13ko 20/2012 ELDk)
- 4- EAJ/PNVek aurkeztu duen mozioa: Irailaren 26an, (greba orokorra), “Arratiako Udalen Mankomunitatean” gertatutakoa.
- 5- Eskaerak eta galderak.